

**Arte Gaztearen 2016ko Topaketan XXXI. ekitaldiaren oinarri
arautzaileak**

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak urtez urte bultzatzen du "Arte Gaztearen topaketak" programa. Helburuak ditu iritziak agertzea eta eztabaidatzea arte jardunaren eta artea ekoizteko espazioen gainean, eta esperientziak, prozesuak eta ikaskuntzak partekatzea arte-lanaren inguruan. Horrez gain, lagundu nahi da arte komunitatearen sarea sortzen, elkarreragiten duena eta proiektuak eta ideiak trukatzeko dituen, baita artista gazteen proiektu eta lanak sustatzen eta erakusten ere.

2016ko ekitaldi honetan, abiapuntua itxaropen berri bat da, iritziaren, ideien eta pentsamenduaren eragile. Diseinatu diren estrategia berrien arabera, adituen mintzaldiak, mahai-inguruak eta eztabaidak egingen dira, eta aurkezten diren arte proiektuak jendaurrean defendatu eta aurkeztuko dira. Gisa hartara, errazagoa izanen da sorkuntzaren eta arte ekoizpenaren ikuspegia bistaratzeko eta aztertzea, eta arte garaikidearen etorkizunari itxura hartzea bere molde eta alderdi guztietan.

2016ko Topaketetan, lortu nahi da diziplina anitzeko arte topaketa baten zabalkunde eta dinamizaziorako espazioa, integrazioa eta kohesioa bilatzen duena erabilitako teknika desberdinen artean eta formatu eta mintzaira desberdinen artean.

Funtsean, artearen eta gizartearen arteko lotura hobea.

Noiz eta non

Irailaren 5etik 11ra, modalitate hauetan: Arte Plastiko eta Ikusizkoak, Ikus-entzunezko Ekoizpena, Musikak eta Arte Eszenikoak.

Arte Gaztearen 2016ko Topaketak programa Iruñeko ZITADELAN egingen da (Arma Aretoko beheko solairua eta Mistoen Pabiloia), modalitate hauetan: Arte Plastiko eta Ikusizkoak, Ikus-entzunezko Ekoizpena eta Musikak. Berriz, Arte Eszenikoak Nafarroako Antzerki eskolan (ENT/NAE) izanen dira.

1. Arau orokorrak

2016ko Topaketak Nafarroako Gobernuak antolatu ditu, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez; bertan parte hartzeko, ondotik ematen diren arauak onartu behar dira.

Xedea

Oinarri hauen xedea da Arte Gaztearen 2016ko Topaketetan parte hartzeko baldintzak ezartzea eta haien deialdia egitea. Programa honen bidez, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak nahi du iritziak ematea eta eztabaidatzea arte jardunaren eta artea ekoizteko espazioen gainean, eta esperientziak, prozesuak eta ikaskuntzak partekatzea arte-lanaren inguruan. Horrez gain, lagundu nahi du arte komunitatearen sarea sortzen, elkarreragiten duena eta proiektuak eta ideiak trukatzeko dituen, baita artista gazteen proiektu eta lanak sustatzen eta erakusten ere.

Modalitateak

Hona hemen Arte Gaztearen 2016ko Topaketen XXXI. ekitaldian dauden modalitateak:

- Arte Eszenikoak
- Arte Plastikoak eta Ikusizkoak
- Ikus-entzunezkoen Ekoizpena
- Musikak

Parte-hartzaileak

Deialdian parte har dezakete ondoko baldintzak betetzen dituzten gazteak:

- Nafarroako foru izaera zibila edukitzea, edo Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea, eta 14tik 35 urte bitarte izatea, biak barne, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako beteak.
- Orobat, izena emateko eskaera bakoitzean agertzen diren kideen %30 beste herri batean sortuak izan daitezke.

- Izena ematen duten kolektibo edo taldeek izaten ahalko dituzte kideen %30 adin horretatik goitikoak edo behekoak. Hala ere, adina ez da izaten ahal 40 urte baino gehiago.
- Eskaera sinatzen duen laguna ordezkari hartuko da, baina ordezkari hori frogatu beharko du.

Izen ematea

Izena emateko inprimakia Gazteriaren webgunean deskarga daiteke (www.navarra.es/home_eu/Gaiak/Gazteria/Programas/Eventos+jovenes+artistas) eta behar bezala beterik bidali beharko da Nafarroako Gobernuaren erregistro elektronikoaren bidez (horretarako beharrezkoa izanen da eskatzaileak ziurtagiri digitala izatea), edo, bestela, edozein administrazio publikoren erregistroaren bidez, edo posta arruntaren bidez, edo bertatik bertara, Gazteriaren Zuzendariordetzan (Yanguas y Miranda k., 27 behea). Tel. zk.: 848-423900 eta 848-427841.

Helbide elektronikoa: juventud@navarra.es

Proiektuaren aurkezpena:

- Proiektuari atxikitako artxiboen tamaina, guztira, ez da 15 Mb baino handiagoa izan behar. Artxiboak handiagoak badira, hiru bide erabil daitezke dokumentazioa guri helarazteko:
- Bertatik bertara utzirik Gazteriaren Zuzendariordetzan, euskarri desberdinetan (usb, cd, dvd, beste batzuk...).
- Zuzenean deskargatzeko link-a bidaliz helbide honetara: juventud@navarra.es
- (wetransfer dropbox) bidez bidal daiteke.
- Posta ziurtatuaren bidez.
- Nolanahi ere, izena emateko inprimakia arestian deskribaturiko araei jarraikiz erregistratu beharko da: Nafarroako Gobernuaren erregistro elektronikoaren bidez (horretarako beharrezkoa izanen da eskatzaileak ziurtagiri digitala izatea), edo, bestela, edozein administrazio publikoren erregistroaren bidez, eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren erregistroan (Arrieta k., 25 Iruña).

Izena emateko epea irekiko da programa ofizialki aurkezten denean, ekainaren 10ean, eta 2016ko abuztuaren 15ean bukatuko da, 24:00etan.

Eskatzen den dokumentazioa

Artistaren eta, halakorik bada, taldeko kide guztien Nortasun Agiri Nazionalaren edo AIZren irudi eskaneatua/fotokopiatua.

Ez dute obran parte hartzen ahalko dokumentazioa oinarrietan zehazten den bezalaxe aurkeztu ez duten pertsonak.

Nafarroako Foru Komunitatean errolatua edo bertako bizilaguna izatearen egiaztagiriaren irudi eskaneatua/fotokopiatua, edo Nafarroako foru izaera zibila jasorik Erregistro Zibilak ematen duen egiaztagiriarena, eta, kideen %30 beste herri batean sortuak izanez gero, horren ziurtagiriarena.

Artistaren edo taldearen ibilbidearen berri ematen duen txostena, pdf edo doc formatuan, curriculum artistikoa duena, eta lanaren deskribapena, honako hauek adierazten dituenak: izenburua, laburpena, kontzeptua, xedeak, justifikazioa, iraupena, parte-hartzaile kopurua, baita obraren premia teknikoak eta aurkeztutako lana hobeki ezagutzeko ezinbestekoak diren alderdi guztiak ere. Txostenak 15 orri izanen ditu, gehienez.

Lana sariturik gertatuz gero, dokumentu bat aurkeztuko da dirua zertan erabiliko den azaltzeko.

Epaimahaia eta hautapena

Epaimahai batzordeak izendatzen direnean emanen dira jakitera. Horretarako, webgunea
(www.navarra.es/home_eu/Gaiak/Gazteria/Programas/Eventos+jovenes+artistas) eta sare sozialak erabiliko dira.

Batzordeetako kideak hautatuko dira kultur kudeaketari, arte ekoizpen eta bitartekaritzari eta/edo laborategi eta artea ekoizteko eta sustatzeko espazioei loturiko aditu eta profesionalen artean. Horrez gain, proiektuak ekoizteko eta erakusteko zirkuituak kontrolatzen dituzten profesionalak izanen dira, deialdiko modalitate desberdinetan artisten errentagarritasun ekonomiko-soziala eta ikusgaitasun mediatikoa abiarazteko, baita idazkari bat ere, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutukoa, oinarri hauek interpretatzean eta aplikatzean sor daitezkeen kontu guztiak ebazteko ahalmenaren jabe.

Batzordekideak falta direnean edo eri daudenean, haien ordezkioak ari daitezke. NKGIak izendatuko ditu ordezkioak.

Parte-hartzaileek aurkeztutako lan eta proiektuak ebaluatuko dituzte epaimahaikideek. Erabakia gehiengoz hartuko dute eta behar duten aholkularitza teknikoa eska dezakete.

Aniztasuna, saiakuntza, ikerketa eta abar izanen dira balorazioaren oinarriak.

Epaimahaikideek, lehenik, finalerdira pasatuko diren lanak hautatuko dituzte aurkeztutako guztien artean.

Epaimahaiak, modalitate bakoitzean, bere erabakien akta egingen du, baita sariak emateko proposamena ere.

Arte Eszenikoen Epaimahaia:

- *Patxi Larrea*
- *Ion Barbarin*

- Idoia Montero

Arte Plastikoak eta Ikusizkoak Epaimahaia:

- Javier Arbizu
- Ana García Alarcón
- Juan Aizpitarte
-

Ikus-Entzunezkoen Ekoizpenaren Epaimahaia:

- Oskar Alegria
- Joan Jordi Miralles
- Andrés Vial

Musikaren Epaimahaia:

- Fernando Garayoa
- Patxi Goñi
- Iker Bábara

Sariak

1. saria: 2.500 €
2. saria: 1.500 €
3. saria: 1.000 €
4. saria: 500 €

Lan sarituaren jarduera ezagutzera emateko eta sustatzeko edozein ekintzatan erabiliko da saria, baita prestakuntzan edo Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin aitzinetik adosten den beste edozein ekintzatan.

Sarien zenbatekoa legez ezarritako atxikipen fiskalaren mende egonen da.

Goiti-beheitiak

NKGIak ebatziko ditu Arte Gaztearen Topaketetan gertatzen diren goiti-beheiti guztiak, bai eta oinarri hauetan aurreikusita ez dauden afera guztiak ere.


Era berean, NKGIak ahalmena du sortzen diren aferen gainean erabakiak hartzeko, oinarri hauen interpretazioari eta aplikazioari dagokienez.

Orobat, ez du inola ere erantzukizunik izanen parte-hartzaileek plagioa edo jabetza intelektualaren alorrean indarra duen legeriaren urraketak eginez gero.

Datuen babesa

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betez, parte-hartzaileek emandako datuak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren ardurapeko fitxategi automatizatu batean sartu ahal izanen dira, beste pertsona eta entitate batzuekiko komunikazioak eta informazio-trukeak errazteko, betiere haien eskumenak eta eginkizunak lehiaketarekin loturarik badute. Edonork erabil dezake dagokion informazioa eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta haien kontra egiteko eskubidea. Horretarako, idazki bidez egingen dio eskaera Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari, dokumentu honen bukaeran agertzen den helbidera.

Harremanetarako tokiak
Gazteriaren Zuzendariordetza
Yanguas y Miranda kalea, 27. 31003.
Iruña
848-423900 848427841
juventud@navarra.es



ARTE ESZENIKOEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Xedea

Ondoko arlo hauetan egindako muntaiak eta lanak: dantza, antzerkia, zirkua, balleta, performance-a edo gorputz-adierazpenaren bestelako joerak.

Konpainia, talde edo artista batek egindako edozein proiektuk hartzen ahalko du parte, lan hori eszena-lengoaia garaikideekin eta mugimendudun arteekin lotuta badago.

Lehiaketaren nondik norakoak

- 1. fasea (hautaketa): Epaimahaiak baloratuko du artistek bideoz aurkezten dituzten lanak, eta 6 proposamen inguru hautatuko.
- 2. fasea: fase honetan talde hautatuen zuzeneko emanaldiak izanen dira. Emanaldiak hiru egunez egingen dira Nafarroako Antzerki Eskolan; antzezenaren ordena lanen iraupenaren eta modalitatearen arabera izanen da.
- Aitzinetik bilera egingen da, talde bakoitzaren datak eta ordua erabakitzeko, eta orobat bakoitzerako behar diren baldintza teknikoak erabakitzeko, NAEko arduradunekin batera. Hura antzezenaren aurretiko egunetan iragarriko da.
- Epaimahaiak, taldeen saioak ikusi eta lan sarituen epaia emanen du.
- ENT/NAEa eta aukeratutako taldeen arteko jarduera osagarriak.

Sariak

Honako xede hauetarako erabiliko dira: lan sarituaren jarduera ezagutzera emateko eta sustatzeko edozein ekintza; egonaldiak, dantza sortu edo interpretatzeko espazioetan, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin aitzinetik adosten den bestelako edozein jarduera.



ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Xedea

Pinturan, eskulturan, grabatuan, marrazkian, argazkian, bideoan, obra grafikoan, instalazioan, soinu-artean, hiri artean, baliabide berrietan, net.art-ean edo bideojokoan egindako lan edo proiektuak aurkez daitezke, baita lan eta proiektu diziplinartekoak ere. Lan edo proiektua originala izan behar da.

Lehiaketaren nondik norakoak

- 1. fasea (hautaketa) - Epaimahaiak aitzinetik ezarritako irizpideen arabera baloratuko ditu proiektuak, eta hogeit hamar lan finalista inguru hautatuko ditu.
- 2. fasea (finala) - Lan hautatu horiek fisikoki entregatuko dira Iruñeko Zitadelan, artistei aurretik eman ondoan dataren eta toki zehatzaren berri, eta epaimahaiaren eta gainerako artista hautatuen aitzinean defendatuko dituzte, ekitaldian izanen baitira. Epaimahaiak lan sarituen epaia emanen du.
- Parte hartzen duten epaimahaien adituekin Workshops egingo dira.

Sariak

Sariak honako xede hauetarako erabiliko dira: ekoizpenari loturiko edozein ekintza, lantegiak, materialaren erosketa, katalogoaren edizioa eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin adosten den bestelako edozein jardura.



MUSIKEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Xedea

Popean, rockean, jazzean, bluesean, elektronikoan, egile abeslarietan, hip-hopean, folkean, heavyan, new agean, funkyan edo musikako joera berrietan ari diren musika taldeak aurkezten ahalko dira.

Oinarri orokorretan eskatzen den dokumentazioaz landa, bi konposizio aurkeztu behar dira mp3 formatuan grabatuak.

Epaimahaia

Epaimahaikideak izendatzen direnean jakinaraziko da ofizialki. Horretarako, webgunea

(www.navarra.es/home_eu/Gaiak/Gazteria/Programas/Eventos+jovenes+artistas) eta sare sozialak erabiliko dira.

Kontzertuak Zitadelako Arma Aretoaren kanpoaldearen ondoko agertokian egingen dira, eta eguraldiak horretarako aukera ematen ez badu, lekua egingen da Arma Aretoaren barnean.

Kontzertuak buruturik, epaimahaia bilduko da eta bere epaia emanen du.

Lehiaketaren nondik norakoak

1. fasea (hautaketa) - Aurkeztutako konposizioak baloratuta, epaimahaiak 12 talde inguru hautatuko ditu, Zitadelan zuzenean jotzeko.

2. fasea (finala) - Hautatutako artistek lau kontzertu emanen dituzte. Sarrera dohainik izanen da. Epaimahaiak, proposamenak zuzenean entzun eta gero, sarien epaia emanen du.

Sariak

Sariak sormen lanarekin ikusteko duten ekimenetarako erabiliko dira (prestakuntza, grabazioa, materialaren erosketa eta abar), bai eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin adosten diren bestelako edozein jardueratarako ere.



IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENAREN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Xedea

Honako hauek aurkez daitezke: fikziozko edo dokumental gisako narratiba duen ikus-entzunezko proiektua, spotak, bideoan, 2 edo 3 dimentsioko animazioan, bideojoko modura edo euskarri interaktiboan eginak, eta beste edozein joera ikus-entzunezko teknikak erabiltzen baditu eta zine-pantailetan proiektatzeko, telebistan emateko edo ordenagailuetan edo gailu elektronikoko mugikorretan aplikatzeko helburua badu.

Epaimahaia

Epaimahaiaren batzordeak izendatzen direnean emanen dira jakitera. Horretarako, www.navarra.es/home_eu/Gaiak/Gazteria/Programas/Eventos+jovenes+artistas webgunea) eta sare sozialak erabiliko dira.

Artistek emanaldian defendatuko dituzte beren lanak, hautatu diren gainerakoekin batera eta epaimahaiko kideen aitzinean, obrak proiektatzeko espazioan (Zitadelako Arma Aretoa eta Mistoen Pabiloia).

Gero, epaimahaia bilduko da eta bere epaia emanen du.

Lehiaketaren nondik norakoak

- 1. fasea (hautaketa) - Bideoak edo proiektuak aurretik ezarritako irizpideen arabera baloratuta, epaimahaiak 8-10 lan inguru hautatuko ditu.
- 2. fasea (finala) - Obra horiek Zitadelako Arma Aretoan proiektatuko dira eta artistek defendatuko dituzte epaimahaiaren eta gainerako artista hautatuen aitzinean, gonbidatuak izanen baitira. Epaimahaiak sarien epaia emanen du.
- Parte hartzen duten epaimahaien adituekin Workshops egingo dira.

Sariak

Sariak honako xede hauetarako erabiliko dira: lan sariduna ezagutzera eman eta sustatzeko ekintzak, proiektu berri baten ekoizpena, egonaldiak ekoizpen artistikoko zentroetan eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin adosten den bestelako edozein jardueratan.



**ARTE GAZTEAREN TOPAKETAK
DATU PERTSONALAK**

Taldearen edo artistaren izena			
Helbide elektronikoa		Telefonoa	
NANa		Harremanetarako pertsona (taldeak)	
Jaioteguna		Adina	
Harremanetarako posta helbidea:			
Herria		Posta kodea	
TALDEKIDE GUZTIEN DATUAK			
Izen-deiturak	NANa	Jaioteguna	Harremanetarako telefonoa
LANAREN EZAUGARRIAK			
Lanaren izenburua			
Modalitatea	*** Zerrendatik Aukeratu		
AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA			
Txosten artistikoa	<input type="checkbox"/>	NANa	<input type="checkbox"/>
Curriculum artistikoa	<input type="checkbox"/>	Erroldaren ziurtagiria	<input type="checkbox"/>

Iruñean, 2016ko aren (e)an.

Sinadura:

(*) Bidali juventud@navarra.es helbidera, edo, bertatik bertara, Yanguas y Miranda kalean, 27. beheka Iruña



**ARTE GAZTEAREN TOPAKETAK
DATU PERTSONALAK**

Taldearen edo artistaren izena			
Helbide elektronikoa		Telefono zenbakia	
NANa		Harremanetarako pertsona (taldeak)	
Jaioteguna		Adina	
Harremanetarako posta helbidea:			
Herria		Posta kodea	
TALDEKIDE GUZTIEN DATUAK			
Izen-deiturak	NANA	Jaioteguna	Harremanetarako telefonoa
LANAREN EZAUGARRIAK			
Lanaren izenburua			
Modalitatea	*** Zerrendatik Aukeratu		
AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA			
Txosten artistikoa	<input type="checkbox"/>	NANa	<input type="checkbox"/>
Curriculum artistikoa	<input type="checkbox"/>	Erroldaren ziurtagiria	<input type="checkbox"/>

Iruñean, 2016ko

Sinadura:

(*) Bidali juventud@navarra.es edo, bertatik bertara, Yanguas y Miranda kalean, 27. behe. Iruña